



ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

1. Alea 1996ko Iraila



**JAI ARRAKASTATSUAK
GATZAGAN DORLETAKO
AMAREN OMENEZ**

UNIBERTSITATEA SAN VIATORREN

Eskoriatza zain dago, ea Mondragon Unibertsitateak Eskoriatzan jartzen ete duen beste fakultate bat.

Izan be, Deba Garaiko Ikastolak eta Unibertsitate Eskolak babesten dituen GIZABIDEA fundazioak interes berezia azaldu du Eskoriatzako San Viator eraikinarekin.

Fundazioko arduradunen esanetan San Viator oso egokia izango litzateke Giza Baliabideen eta Enpresaren Fakultatea jartzeko. Bi arrazoi daude horretarako: alde batetik, Eskoriatzako Irakasle Eskolaren menpe egongo da fakultate berria; bestalde, gaur egun San Viator oso gutxi erabiltzen da daukan ahalmenerako. Gainera, eraikuntza barriak egin ahal izateko aukera haundiak dauzka inguruan dituen lurretan.

San Viator eraikina gauza asko izan da historian. Ospitale izateko eraiki zen XVII. mendean, Errosario Santuko Ospitalea. Gero, Viatoristen seminarioa izan zen eta orain 11 fraile viatorista bizi dira egoitzan.



IHORTZIRI

Aurten ere hasia da Ihortziri bere urteroko lehen bilerak antolatzen. Bilera hauetan, taldearen urteroko bilakaera eta epeen mugaketari buruz hitzegiten da. Aurtengo kanpainan, proiektu berri bat dugu esku artean orain arteko guztia alde batera utziaz.

Aurreko urteetan, "Larunbatero" izeneko ekintzak burutu izan ditugu, izenak berak dioen bezala larunbatetara bideratutako ekintzak. Baina aurten ez da jarraituko prozedimendu hau; Udaletxearekin harremanetan gabilta ekintza bereziak antolatzeko asmoz: hala nola, "Pin"-era irteera, astebukaera aterpetxean, eta abar.

Aurreko urtetik aurtengora aldaketa handia egon arren, Ihortziri-ren helburu nagusiak tinko mantenduko ditugu: euskeraren erabilera eta ondo pasatzeaz bat zenbait baloretan hezitzea.




Oso garrantzitsua da euskararentzat zu ere gure hizkuntzaren uretan murgiltzea, dagoeneko askok eta askok egin dugun bezala. Ikasturte honetan Udal Euskaltegiok aukera hori eskaintzen dizugu. Anima zaituz, zatoz, gurekin gozatu egingo duzu eta.

EUSKALTEGIAN IKASTURTE BARRIA

Irailaren 23an eman zaio hasiera 96-97 ikasturtari. Momentuz euskalduntzenaren 1., 3., 5., 6. eta 9. urratsak dira hasi direnak. Klaseak goizez eta arratsaldez izango dira.

Bestalde, Udal Euskaltegiak, Amuskarekin batera ikastaro bereziak antolatu gura ditu. Amuskako bazkideei zuzenduatako klaseak jarri gura ditugu martxan. Lerro hauetatik herriko emakume guztiak animatu gura ditugu. Bi ikastaro mota izango dira, bata euskaraz jakin bai baina idazteko eta irakurtzeko arazoak dituztenei begira eta bestea ezer ez dakitenei, bietan ere gramatika aparte utziko delarik eta bertako euskera darabilten irakasleekin.

0-8 urteko haurren gurasoekin ere hartu-emanetan jarri nahi dugu beraientzat bereziki antolatutako klaseak aurrera ateratzeko.



Liburu gomendioa.

ALADIN

Patxi ZUBIZARRETAREN
edizioa

Argitaletxea:

PAMIELA, tamaina ttikia

Badira literatur tradiziuan mila eta bat aldiz irakurri, entzun edota zinean ikusita izanik ere, agortzen ez diren istoioak. Horietako bat dugu "mila gau eta bat gehiago" bildumako "Aladinen istorioa edo argiontzi miresgarria".

Zoritxarrez, istorio honen moldaketa labur eta desegokia Walt Disneyren "Aladin" filme entzutetsuak eskaini ziguna da gehien ezagutzen duguna. Eta liburuak, berriz, Aladinen benetako istorioa, bere originaltasun goxoa irakurtzeko aukera ematen digu.

Patxi Zubizarretak eginiko itzulpen egoki eta zaindu baten bidez, istorioa osorik ezagutzeko aukera paregabea.

GATZAKO JAIAK



Urtero bezala, oso arrakastatsuak suertatu ziren Gatzan Dorletako Amaren omenez antolatu ziren jaiak.

Jaiei, irailaren 6an, herri poteoaz eta Trabuko taldearen erromeriaz eman zitzaien hasiera.

Larunbatean, goizean goiz bildu ziren txirrindulari karreran laguntzen ibiliko zirenak. Bixamona galanta zeukaten han agertu ziren batzuk. Ohean gelditu zirenak iratzargailuaren aitzakia jarri zuten. Lasterketaren irabazlea, Acedo ikaztegiatarra izan zen.

Eguerdiko giroa apartekoa izan zen: herri bazkaria, trikitalariak, etab.

Ekitaldi guztietatik bi aipatuko genituzke: bat, herri bazkaria; bertan aurpegi berri asko bildu zen, hoiien artean herrira etorri berri asko. Bestalde, jaki ederrak

eskeini zizkiguten herriko emakumeek. Bi; nobenaren bukaerara sekulako jendetza batu zen. Baita ondoren egin zen gazta eta ardo dastaketara ere.

IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

HEMEN

ZURE

PUBLIZITATEA

Pub CIPRI'S

Behin etorri
Eta baietz berriz...

Domekan, irailaren 8an, meza nagusia ospatu zen Gorosarri abesbatzarekin eta Naroa Enekotegi sopranoarekin. Azken honi buruz esan, maila oneko kantaria dela, eta suerte apur batekin oso gora helduko dela.



Igandean, baina eguerdi partean, Goierri aldeko bi herri kirolari taldek aparteko ikuskizuna eskeini ziguten.

Igande arratsaldean, berriz, ume jolasak eta bertsolariek hartu zuten txanda. Ume jolasek demaseko ume pila bildu zuten. Bertsolariek, aldiz, jende gutxi. Beharbada herriko jendearen aldetik gauzak ez zirelako behar bezala prestatu.



Horrela ba, bi egun horiek jende ugarirekin eta umore onarekin joan zaizkigu eta, jakina, ordua da balantzea egiteko eta datozen urtekoei begira jartzeko.

FRANCIS BODEGA

Muñarrate ardoa

Gaztañadui, 21 behea

BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea, 21
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

HEMEN

ZURE PUBLIZITATEA

- Irailak 14ean San Juan kaleko eguna ospatu zen, bazkarira 140 pertsona inguratu zirelarik. Kontatu digutenez giroa oso alaia izan zen.
- Herriko jubilatuek egun ederra igaro zuten Kantabria aldean, eguraldia bera ere lagun eduki zutelarik.
- Intxaurtxueta auzoan etxebizitza bloke barri baten eraiketa hasi da; baita inguruaren urbanizazioa ere: bankuak, arbolak, farolak, ... jarriko dituzte.
- Polikiroldegiko obrak ere datorren hilean hasiko dira. Bertan igerileku bat, frontoi txiki bat, sauna eta abar egingo dituzte. 6 hilabetetan obra hauek bukatuta egotea espero da.
- Frontoi zaharraren aurreko plazan ere obrak ditugu. Banku eta arbola berriak jarriko dituzte, baita saskibaloian jolasteko bi kanasta ere.
- Gure herriko elizateetan obra garrantzitsu bat hasi da. Bertako ur-hornidura berriztuko da Aretxabaletako Udala eta Mendi Nekazaritza Departamenduarekin elkarlanean.
- Bolibar auzoko jaiak ere joan zaizkigu iraileko azkenengo aste bukaeran. Giro jatorra izan da zapatu eta domekako ospakizunetan.
- Irailak 23an erromes joan ziren eskoriatzarrak Arantzazura. Irailaren 9an izan zen Arantzazuko Amaren eguna, baina urteroko erromesaldia geroago izaten da.





NAFARROA OINEZ

Urriak 13 NAFARROA OINEZ ospatuko da Etxarri Aranatz-en. Bertara autobusean joateko asmoa badaukazu ohizko tokietan eman izena. Insumiso Taldearekin kontaktatu.



MARITXU KAJOI

- **Urriak 4an Maritxu Kajoi** ospatuko da Arrasaten. Zuen erropak gertatzen hasi beharko zarete jadanik.



AMUSKA

- Urriak 19 eta 20rako AMUSKA-k Salamanka eta Portugalera bidaia antolatu du. Joateko gogoaz bazabiltza beraiekin jarri kontaktuan.

- Urriak 17an eskulan ikastaroak hasiko dira AMUSKA-k antolaturik.

- Urriaren zehar autoestima ikastaroa antolatu du AMUSKA-k.

- Saskibaloian:

Neskak: kadete eta seniorrak

Mutilak: seniorrak

- Areto futbola:

Jubenilak eta seniorrak.

MENDI IRTEERAK

- Urriak 6an: Txarlazo (Orduñatik).

- Bi eguneko irteera Nafar Pirineotara kanpinean:

12an: Orbañeta-Irati

13an: Irati-Otsagabia

- Urriak 27an Mugarra Mañaritik.

Joan nahi duenak Namasten eman dezake izena.

KIROLAK

- Urriak 6an hasiko dituzte gure kirolari desberdinek beren txapelketak. Aurten honako talde desberdinok izango ditugu jokoan:

AURTENGO MODULUEN TARIFAK (1996- 1997)

Portadan 4 modulo	8.000 pta.
Kontraportada	30.000 pta.
Orrialde osoa	25.000 pta.
Orrialde erdi	15.000 pta.
8 modulo	12.000 pta.
6 modulo	9.000 pta.
4 modulo	6.000 pta.
2 modulo	3.000 pta.
Modulo bat	1.500 pta.

PUBLIZITATEA KONTRATATZEKO
DEITU **714077**-ra

moduloa
4 x 4 Zm.

AXTROKI KULTUR ELKARTEA

(BAZKIDE TXARTELA - 300 PTA. HILEAN)

Izena:

Abizenak:

Helbidea: Tfnoa.:

Bankua/Aurrezki K.: Kontu Zk.:

AUKERATU

- BATZORDE ERAGILEAN
 ZE BARRI? ALDIZKARIAN
 KANPO EKINTZATAN

BESTELAKOAK

PARTE HARTUKO NUKE